

Azeribuztanaren logaritmoa

AZERIBUZTANA –*Equisetum sp.*– landare zaharrene-takoa bada ere, modernoaren zapela jantz dezake.

Bitxia ere bada. Lorerik ez du ematen ugaltze-ko, eta beraz, ezta fruiturik ez hazirik ere. Askotzeko, ugaritzeko, esporak erabiltzen ditu, garoek eta perretxikoek erabiltzen duten bidea. Hezetasu-na den tokietan oparoa den bidea.

Aziendari isatsean lotzen omen zioten azeri-buztana, euli eta ez euli, inguratzen zirenak kolpe-ka uxatzeko. Isatsa motz, nonbait; isatsa gehi buz-tana egoki.

Landareak azalean dituen silize koxkorrak dira bere osagai goraiapatuenak, sendabide eta osagarri bezala, batik bat. Azeribuztan bat, *Equisetum telma-teia*, esklaboekin batera iritsi omen zen Ameriketara.

Itxura denez, Afrika beltzean adorea, kemena eta bizitasuna puzteko azeri-buztana ahoan murtxikatze-ko ohitura zuten; baita digestibo eta afrodisiako gisa ere. Lehengoan esan nuen “tornularien buz-tana” deitzen diotela gazte-raz, baita “arotzen buz-tana”

ere; itxuraz, lagungarri ona da zauriak osatu eta orbaintzeko, eta langintza horietan aritzen zirenek erruz erabiltzen zuten. Zura leuntzeko eta ezkardaren zauria osatzeko aroztegiko belarra, azeribuztana.

Bestelako gaiak ere izan ditzake, kaltegarriak alegia. Azienda larria larri ibiltzen da azeribuztanarekin. Onddo baten erasoaren ondorioz, “palustrina” izeneko alkaloidea sortzen du, eta, gorputzean metatuz, behikundean herrenak eta nerbioekin lotu-tako arazoak ekar ditzake. Tiaminasa entzima ere badu, eta horrek B multzoko bitaminak zapuzten ditu, batez ere B1; gehienbat behor jendean. Geuk hartzerakoan, behintzat, ziurtatu *Equisetum arvense* dela, hori baita gai horietatik gutxien duena.

Azeribuztana modernitatearekin betiko lotuko dutenak logaritmoak dira. Egungo garapen teknolo-giko guztia posible egiteko, kalkulu matematikoen erraztea ekarri zuten logaritmoak John Napierrek proposatu zituen XVII. mendean, agidanean, azeri-buztanaren adartxoan proportzioan oinarrituta. ■

Equisetum arvense,
azeribuztanen artean
geuk erabiltzeko egokiena.



JAKOBA ERREKONDO

Amatzako altzoa

ORAINTXE DU sasoia. Ezkur bat. Eguna luze. Giro poli-ta. Hezetasunak azala beratu dio. Barruko mamia puztu da. Hormonen dantza hasi eta hazia hozitu da. Ernatu da. Sustriak luzatu. Lurraren epela neurtu. Eta gora jo behar. Zurtoinak gora ekingo dio. Hostoak hedatu eta betirako bizitoki izango duena ezagutu. Haizeak, eguzkiaren bideak, ilargiaren keinuak... Auzoko izango dituen diosala egitea ez zaio, inola ere, ahaztuko.

Kanarietako palmondoak (*Phoenix canariensis*) ama-tza lanetan, hosto tarteko altzoan hartu du haritz kanduduna (*Quercus robur*). Laster igarri zion ezkurak, sustriak lurra ukitu ordurako: ama ona izango du. Ederki etorriko da. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

